

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

### Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

#### Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Ekainaren 20an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez, textua honakoa izanik:

*“Erbestea konstante bat izan da gizateriaren historia eta gurean ere presente egon da: gu ere erbestea izan ginen. Gaur egun, berriz babesleku izan behar gara. Errefuxiatuen eskubideetan irrimo sinesten dugu, eta harrera integrala eta duina egiteko konpromisoa hartzen dugu.*

*Euskadin, arrazoi historikoak direla-eta, euskal gizarteak konpromiso handia izan du beti asilo-espazio eta babesleku izatearekin. Beren herrialdeetatik ihes egitera behartuta dauden pertsonak ahalik eta duintasun handienarekin tratatzea eta haiei aukera berriak edukitzea laguntzea gizarte gisa daukagun konpromisoa da. Iraganean erbestea zena babesleku bihurtu da gaur egun, eta alderantziz.*

*Gure erbestealdia gogoratzeak aukera ematen digu gaur egun gerratik, indarkeria politikotik, genero-jazarpenetik, klima-aldaketatik, gatazka belikoetatik eta abarretik ihes egiten dutenekin empatia gehiago sentitzeko. Azken urteotan, areagotu egin da nazioarteko babes premiaz Euskadira iristen den pertsonen kopurua, baita Europako beste herrialde batzuetara iristeko Euskaditik igarotzen diren pertsonen kopurua ere.*

*Drama horren ondorioz, urteetan zehar 5.000.000 errefuxiatu baino gehiagok beren jatorrizko herrialdeetako pobreziatik eta gerratik ihes egin dute eta bidaia arriskutsu bati ekin diote Europara iristeko. Zehazki, aurten dagoeneko 350.000 pertsonak ekin diote bidaia horri, eta Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatarien Bulegoak (ingelesez UNHCR eta gaztelaniaz ACNUR) argitaratutako datuen arabera, 2.500 pertsona baino gehiago hil dira jada 2022. urtean*

*Europar azken 50 urteetan bizi izan dugun krisi hu-*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 20 de Junio de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*“El exilio ha sido una constante en la historia de la humanidad y ha estado presente en la nuestra: también fuimos exilio. Y hoy nos corresponde ser refugio. Creemos firmemente en los derechos de las personas refugiadas y nos comprometemos con una acogida integral y digna*

*En Euskadi, por razones históricas, el compromiso de la población vasca con el asilo y el refugio ha existido siempre. La voluntad de tratar con la mayor dignidad posible a las personas que se ven obligadas a huir de sus países y apoyarlas en la construcción de nuevas oportunidades forma parte de nuestro compromiso como sociedad. Los caminos de exilio y refugio se han invertido entre ayer y hoy.*

*La memoria de nuestro propio exilio nos permite empatizar mejor con quienes hoy huyen de la guerra, la violencia política, la persecución de género, cambio climático, conflictos bélicos... En los últimos años se ha incrementado el número de personas que vienen a Euskadi con necesidad de protección internacional y también el número de quienes la atraviesan en tránsito hacia otros países europeos.*

*Drama que a lo largo de los años ha supuesto que más de 5.000.000 de personas refugiadas hayan huido de la pobreza y la guerra en sus países de origen y hayan iniciado una peligrosa travesía para alcanzar Europa. En concreto, en lo que va de año han sido 350.000 personas y, de acuerdo con los datos oficiales publicados por ACNUR, durante esa travesía han muerto ya más de 2.500 personas.*

*Estamos ante la mayor crisis humanitaria de los últi-*



*manitariorik handiena da hau. Egoera benetan larria da, eta nazioarteko politika negargarriak babestutako gerretatik ihes egiten duten pertsonen aurrean, Europar Batasunak ezin du ez-ikusiarena egin. Europar Batasunera iristen ari diren pertsona errefuxiatuen fluxua modu esponenzialean areagotzen ari da, eta arazo horren jatorria konplexua eta anitza da.*

*Arazo horretan munduko gauzarik preziatuenak jartzen dira arriskuan: giza bizitzak. Hala ere, arazo horrek talde populista eta xenofoboak nolabaiteko gorakada eragin du, Europar Batasunaren eta Schengen espazioaren egonkortasunerako arriskuak sortu ditu, eta beraz, etorkizunera begira, Europar Batasunak bateratu gisa duen erronka handienetako bat da.*

*Pandemia gorabehera, 2020an eta 2021ean 4.809 asilo-eskatzailer iritsi ziren Euskadira guztira (% 42 emakumeak eta % 17 adingabeak). 2022an berriro aktibatzen ari dira nazioarteko babes-premiak dituzten pertsonen fluxuak: aurtengo urtariletik apirilera bitartean soilik ia 1.287 eskaera erregistratu dira, hau da, 2021 osoan aurkeztutakoen % 75.*

*Kopuru horri Ukrainaren inbasiotik ihes egin dutenak gehitu behar zaizkio; izan ere, 2001/55 Zuzentarauaren aktibazioari esker, aldi baterako babes-mekanismo espezifiko batean sartzeko aukera dute.*

*Ildo horretan, euskal erakunde guztiak beti egon dira konprometituta errefuxiatuen harrerarekin. Siriako gerra gogoetarako unea izan zen: lehenik eta behin, denbora gutxian Europar Batasuneko herrialdeetara iritsi ziren pertsonen kopurua esanguratsua izan zelako; eta bigarrenik, argi geratu zelako harreara-sistema zentralizatua ez zegoela prestatuta nazioarteko babes behar duten pertsonen testuinguru berriaren errealitateari erantzuteko.*

*Horrek esan nahi du orain arte udalen, foru-aldundien eta autonomia-erkidegoen zeregina proaktiboa izan dela. Arazo hori konpontzeko, premia hartu behar dira, baina, aldi berean, egiturazko neurri batzuk onartu behar dira, luze iraungo duela dirudien fenomeno dramatiko honi errotik aurre egiteko.*

*Mugetako, nazioarteko babeseko edo atzerriartasuneko politikak Estatuaren eskumenekoak diren arren, tokiko eremuan kudeatzen dira premia hurbilenak, harrera eraginkorra, integrazioa eta aniztasuneko bizikidetzak. Euskadik gizarte-zerbitzuen arloko eskumena du, eta euskal botere publikoek hartu behar dituzte, beren eskumenen esparruan, pertsonen*

*mos 50 años en Europa. La situación es de auténtica emergencia y la Unión Europea no puede mirar hacia otro lado ante las personas que huyen de guerras auspiciadas por una nefasta política internacional. Este incremento exponencial de los flujos de personas refugiadas hacia la Unión Europea es un problema global de naturaleza compleja y diversa.*

*Un problema en que se pone en riesgo lo más preciado de este mundo, que son las vidas humanas. Un problema que, pese a ello, determina un cierto auge de los grupos populistas y xenófobos, plantea riesgos sobre la propia Unión y el espacio Schengen y, por tanto, representa uno de los mayores desafíos de Europa cara a su futuro como proyecto unitario.*

*A pesar de la pandemia, durante los años 2020 y 2021 Euskadi recibió un total de 4.809 solicitantes de asilo, (42% mujeres y el 17% menores). En 2022 se están reactivando nuevamente los flujos de personas con necesidades de protección internacional: solo entre los meses de enero y abril de este año se registraron casi 1.287 solicitudes, es decir, un 75% de las presentadas en todo 2021.*

*A esta cifra hay que añadir a quienes han llegado huyendo de la invasión de Ucrania y que, gracias a la activación, por primera vez, de la Directiva 2001/55, tienen acceso a un mecanismo específico de protección temporal.*

*En este sentido, todas las instituciones vascas han estado siempre comprometidas con la acogida de personas refugiadas. La guerra de Siria supuso un momento de reflexión. Primero, porque el número de personas que salieron en un periodo breve de tiempo y se dirigían hacia los países de la Unión Europea era significativo. Segundo, porque se hizo evidente que el sistema de acogida centralizado, no estaba preparado para atender a la realidad del nuevo contexto de personas con necesidad de protección internacional.*

*Eso significa que, hasta la fecha, el papel de ayuntamientos, diputaciones forales y comunidades autónomas ha sido proactivo. Un problema cuya solución requiere la adopción de medidas de emergencia, pero, al tiempo, la aprobación de unas medidas estructurales que afronten de raíz este dramático fenómeno cuya vocación de durabilidad parece manifiesta.*

*Si bien las políticas de fronteras, de protección internacional o de extranjería son competencia estatal, es en el ámbito local donde se gestionan las necesidades más inmediatas, la acogida efectiva, la integración y la convivencia en la diversidad. Euskadi tiene la competencia en el ámbito de los servicios sociales y son los poderes públicos vascos, dentro del marco*



*eta pertsona-talde horien askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko dauden oztopoak kentzeko neurriak.*

*Ildo horretan, Udalbatza honen eta donostiar gehien iritzia interpretatzen dugula uste dugu, azpimarratzen baitugu lehentasuna duela gatazka klimatiko, politiko, militar eta genero-gatazketatik ihes egiten duten pertsona eta familia errefuxiatuei arreta emateak, betiere tartean dauden gainerako administrazio publikoekin koordinatuta.*

*Hori dela-eta, gure udal taldeak honako erakunde adierazpen hau egiten du:*

#### ERAKUNDE ADIERAZPENA

*1.- Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du udal jarduketak gaitzeko konpromisoa, bai Harrera Planak zehaztutakoak, bai Donostian egin beharreko informazio- eta sentsibilizazio-planean zehaztutakoak, era horretan, bere eskumenen barruan, udal-baliabideak erabiliz, erabateko harrera emateko.*

*2.- Donostiako Udalbatzak Europar Batasunari eta bere estatu kideei eskatzen die —bereziki Espainiako Gobernuari—, Europako sistema komun bat eratzeko, bai asiloaren arloan, bai immigrazioaren arloan, horien bidez larrialdi-egoerei erantzun azkarrak eman ahal izateko eta jatorrizko herrialdeetan lankidetzan jardun ahal izateko.*

*3.- Diskurtso arrazista eta xenofoboan aurka agertzen da Donostiako Udalbatza, arreta berezia jarri diskurtso politikoek fenomeno instrumentalizatu ez dezaten eta gizarte-haustura susta ez dezaten.*

*4.- Donostiako Udalbatzak, gainerako euskal erakundeekin batera, bertako populazioari zuzendutako sentsibilizazio-jarduketak indartzearen alde egiten du, besteak beste zurrumurruen aurkako estrategiak eta bestelako baliabideak erabiliz, errefuxiatuen eta migratzaileen inklusioa eta bizikidetzak bultzatzeko.*

*5.- Donostiako Udalbatzak Europar Batasunari eskatzen dio —eta bereziki Espainiako Gobernuari— Dublingo protokoloa gainditu eta erantzukizun kolektiboko mekanismo koordinatu bat oinarritzat hartuta, Europar Batasunean sartzeko eskaerei erantzuteko sistema bat ezar dezala, hain zuzen ere indarrean dagoena ordeztzeko.*

*de sus competencias, quienes deben adoptar las medidas para remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales.*

*En este sentido, creemos interpretar el sentir mayoritario de esta Corporación municipal y de la ciudadanía donostiarra al poner de manifiesto la prioridad de atender a las personas y familias refugiadas que huyen de conflictos climáticos, políticos, militares y de género, en coordinación con el resto de administraciones públicas involucradas.*

*Por todo ello, nuestro grupo municipal presenta la siguiente*

#### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián reafirma su compromiso de habilitar aquellas actuaciones municipales que le correspondan, derivadas tanto del Plan de Acogida como del de información y sensibilización a realizar en nuestra ciudad, facilitando los recursos municipales, dentro de sus competencias, para una acogida plena.*

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián demanda a la Unión Europea y a sus Estados miembros, especialmente al Gobierno del Estado Español, configurar un sistema europeo común, tanto en materia de asilo como de inmigración, capaz de ofrecer una respuesta rápida a las situaciones de emergencia y a colaborar en los países de origen.*

*3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se posiciona contra los discursos racistas y xenófobos, poniendo especial atención en que los discursos políticos no instrumentalicen el fenómeno de la inmigración ni fomenten la fractura social.*

*4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, junto al resto de instituciones vascas, apuesta por reforzar las acciones de sensibilización dirigidas a la población local, que favorezcan la inclusión y convivencia con las personas refugiadas y migrantes, como las estrategias antirrumores, entre otras.*

*5.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Unión Europea, y especialmente al Gobierno del Estado Español, a superar el protocolo de Dublín y a articular un sistema que aborde las solicitudes de entrada a la Unión desde un mecanismo coordinado de responsabilidad colectiva que sustituya al vigente.*



Idazkaritza nagusia  
Secretaría general

6.- Donostiako Udalbatzak Europar Batasunari eta bere estatu kideei eskatzen die gizakiekin trafikatzeko duten mafia kriminalak jazartzeko eta horiek justiziaren esku jartzeko.

6.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián exhorta a la Unión Europea y a sus Estados miembro a perseguir y poner en manos de la justicia a las mafias criminales que trafican con seres humanos.

7.- Donostiako Udalbatzak herritarrei dei egiten die elkartasuna eta babesa adierazteko kolektibo hauei: gerraren biktime diren familiei, gure hirian babesa hartu duten familiei, baita hemen bizi diren familia migratzaileei ere".  
=====

7.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián hace un llamamiento a nuestra ciudadanía en favor de la solidaridad y apoyo hacia las familias víctimas de la guerra y también hacia las familias migrantes y de refugio residentes en nuestra ciudad".  
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko ekainaren 29an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 29 de junio de 2022.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEORDEAK O. E. -  
V. ° B. ° LA ALCALDESA EN FUNCIONES:**